

## E

## Arte Garaikideko Hiztegia

**Einbildungskraft** (irudimen-indarra)

Sentsualitate, irudimen eta arrazoiaren arteko elkartasun harmoniko bezala definitzen du estetika klasikoak. Zentzuen esperientziatik ateratzen dira irudimen-indarren emaitzak, eta irudimenak finkatzen ditu bere mugak arauetan eta logikaren denbora kontzeptuan. Errealitatearen esperientziak bulkada indibidualen arabera tajutu nahi izateko ahalmena da irudimena edo fantasia. Estetika modernoak, Marcuseren teoria kritizistan, berriro jarri du *Einbildungskraft*-eko kontzeptu hau termino gako eta nagusi bezala, adieraziz horrekin beharizun estetikoerantzuteko moduko sentikortasuna, hau da, fantasia indibiduala besterendu eta merkatu-mekanismoaren kompetentzi izuaren aurka erreakzionatzen duten beharizunei erantzutekoa. Horrekin lortzen da aldi berean alderdi politikoaren eta estetikoaren konjuntzioa, Marcusek irudimenaren indarra (*Einbildungskraft*) ulertzen bait du konformismo-ezaren ahalmen sensorial bezala, edertasun sensorialaren errepresentazio bezala eta, aldi berean, terrorearen eta bortxaren aurkako anti-indar bezala (Marcuse, *Liberazioari buruzko saiakera*, 1969).

**Ekintzako artea**

Arte figuratiboaren arloan ekintzako arte bat garatzen hasi zenean, indar gehiago hartu zuen *action painting* deituarekin (1950. urte inguruan), Zuricheko lehen bilera surrealista egin eta Pariseko ekintza surrealista guztiak ere (1910-1925) eginda zeudenean. *Action painting*-ean bapateko ihardunaren dada-metodoa eta emozioaren enajenazio surrealista elkarrekin juntatzen dira akzionismo inprobisatzaile eta irudikari huts-hutsa emateko, akzionismo berez automatikoki ateratzen dena eta batere zentzu razional eraikitzaile eta ordenatzaile gabe sortzen dena. Artistak ekintza kromatiko ludiko-motrizaz azkar burutuz bere inpulso funtzionala liberatzen duen bitartean, bete-betean murgiltzen da bapateko eginbehar honen jario sortzailean.

*Action painting*-aren ordezkari ezagunen artean aurkitzen da Jackson Pollock pintore iparramerikarra. Honen lan-teknika izendatzeko asmatu zen *dripping* deitura. Pintatzeko teknika honetan koloreak txorroan erortzen uzten dira, mugimendu azkarrak eginez, lurtean zabalduetako mihisearen gainean.


Hogeitamargarren urtetako ekintza-arte neodadaistak (neodada deituak) bereganatu zuen *action painting*-eko artistek keinu

subjektiboaren liberazio bezala praktikatu izan zuten ekimen hori. *Action painting*-aren *dripping*-ari kontrajarriz —gertatu behararen faktore determinatzaile izateko erreflexio-ahalmen kritiko guztia kentzen bait du honek— ekintzako arte neodadaistak, Allan Kaprow eta Claes Oldenburg artista iparramerikarrek sortu zen arteak, erabaki-ahalmen kritikoak bizkortzeko asmoa hartzen du helburu bezala. Ekintzako artea bizitzaren beraren parte bat bezala hartzen da, bizitzako prozesu bat delako eta errealitatearen erabaki-dimentsioak integratzen delako arte-obra denboraren baitan. Allan Kaprow izan zen bere idazki teorikoetan ekintza neodadaistari *happening* izena lehenengoz aplikatu ziona, eta artearen azalpen-modu hau lehenengo mailan jarri zuena, berari emanez gertakizun trazedentalaren izaera.

*Happening* hitzaren definiziotik atera daiteke alegia gure eguneroko ingurunean dagoeneko gertatuta dauden egoerak izaten direla lehengaia ematen dutenak, izan ere *happening*-ak —ikuskitze integral bezala hartuta— deuseztatu egin nahi bait du eszenifikatzailearen eta publikoaren arteko banaketa. Ez bait dago, azkenean, ez publiko eta ez aktorerik. Egonerko alda dezake bere papera komenentziaren arabera, bere gain hartuz esleitzen zaizkion eraldakuntzak eta mugakizunak.

*Happening*-aren eraginez aske geratutako kontzientzi hartzeko prozesua eta horrek berekin izaten duen fluxuaren laguntza musikala, eguneroko bibentzien behin eta berriroko errepikapenez sortutako ernegazioan oinarritzen dira. Ernegazio-momentu honek, hala ere, halako merkaturatze-prozesu bat eskatuko luke, printzipio hori bera izan bait zen publizitateak beretzat erabilitakoa.

Ekintzako artearen bertsio berrienak, arte prozesualak, alde batera uzten du *happening*-aren inprobisazio-karga hori, eta ekintza-prozesua ulertzen du aurrez pentsatutako estrategia baten arabera, alegia errealitate konplexuaren baldintzatzaile-sistema kanpora azaleraizten duen estrategia baten arabera. Honek berak balio du arte demostragarriarentzat ere, arte honek izaera primarioko prozesu esperimentalak bistartzen bait ditu hizkuntza eta keinua erabiliz. Arteak, honela, pertzepzio kontziente hutsera murriztuta geratzen da, ahalmen sensorialak etikotasunaren jatorrizko kontzeptuari buruz jasaten duen elementaltasunaren kausaz, eta gertakizun, esperientzia eta jarreraren analisi didaktiko bezala ulertzen da. Artistak, berriz ere aktore eta hartzailen arteko banadura ezartzen bait du sustraitik berriro, publikoarengandik desbinkulatu egiten da nahita, publiko horrek



Christo

Varios números de la revista *Chicago* envueltos en polietileno transparente con cuerda, 1980.

Medidas: 28 x 22 x 2 cms.

Edición: 35 ejemplares (+ 5 P.A.) envueltos por el autor.  
Editor: Museo de Arte Contemporáneo, Chicago.

uzten bait dio isolatzen eta bere demonstrazioaren egitura bakarka erabakitzen. Atzerakurtze hau, *happening*-aren bitartez lortutako esperientziaren ondorioz sortzen da, izan ere, orokorrean, ikusleak ez bait du inolako sentsibilitate-motarik jartzen, eta artista, beraz, beti behartuta egoten bait da errealitatearen egituraketa argitzailea eta gehienetan baliozkoa, hau da, gizonaren espazio eta denboran baitako jokaera baldintzatzen dutenak, bere kabu eta indar hutsez argitzen saiatzera.

**Empaquetagea**

Paketatuaren prozedura artistikoa izendatzeko sortutako deitura da hau, Man Rayk sartu zuen hogeigarreneko urteetan, eta mailarik superlatiboenera eramanez Christo errealista berriak. Hirurogeigarreneko urteetan hasi zen Christo automobil eta eraikinen paketadurak egiten, eta 1969an Australiako kostako paketadura erraldoia egin zuen eta 1971n, Estatu Batuetako «Valley Curtain» galanta. Zergauza uztean ezkatututa eta kordelaz lotuta, edo terrena uztean estalita, bestelako itxura guztiz desberdina hartzen dute gauzak, eta jatorrizko konfigurazio originala ekartzen da honela gogora, oroitzapen kontziente bezala, ikuspegi berri horrek, aldi berean, irudimen-ahalmenaren asoziazio era-askotakoak egiteko aukera ematen duen bitartean.

(Karin Thomas: *Dumont's kleines Sachwörterbuch zur Kunst des 20. Jahrhunderts* hiztegiaren itzulpena)